



Europako Alderdi Demokratikoaren (EAD) Bilboko adierazpenaren zirriborroa

EUROPE STAND UP! (EUROPA, JAIKI ZAITEZ!)

Historian lehenengo aldiz, Europar Batasuna, gure kontinentearen historiako proiektu bakar hori, zatitu eta desegin egin liteke, bai eta desagertu ere. Gaizki araututako globalizazioak, finantza-krisiaren ekonomia- eta gizarte-ondorio larriek, inoiz ez bezalako iraultza teknologikoaren eraginak eta migrazio-fluxuen kudeaketa kaotikoak eragindako arazoaren ondorio konbinatuaren pean, hainbat talde politiko estremista ikaratuta eta nahasita dauden herritarren ardurak eta beldurrak elikatzen ari dira.

Europak arnasaldi bat eta berrantolaketa sakon eta demokratiko bat behar ditu. Pertsonak Europaren ikuspegitik eta norakotik baztertuak izan dira, baina Europa ez da posible izango horiek gabe.

Guk, demokrata europarrok, gure herrialdeen deriba geldiaraztea erabaki dugu.

Azken hamarkadetan Europako agertoki politikoa menderatu duten alderdi politikoak jadanik ez daude guraso fundatzaileek sortu zuten bultzada europar ikaragarri hura berpizteko posizioan.

Nekatuta daude eta desengainu asko eman dira: herritarren eta erakunde europarren arteko arraila geroz eta handiagoa da eta politika europarrak eskasak edo osatugabeak izan ohi dira.

Demokratek aurrea hartzeko unea iritsi da. Giza-duintasunaren, zuzenbidezko estatuaren, askatasunaren, berdintasunaren, elkartasunaren eta erantzukizunaren errespetuzko baloreen eramaile garen heinean, gure eginbeharra da herritarrek gure baitan dagoen amets bera partekatzea.

Europako Alderdi Demokratikoak konstelazio politiko berri bat nahi du, Europa bide onera itzultzea xede duena, eta horren alde egingo du lan.

Behar duguna ez dira proiektuak.

Moneta bakarra sortu dugu, baina oraindik ez dauka buruzagitza politikorik. Era berean, ez dago tresnarik eta aurrekontu-baliabiderik euroguneko herrialdeek



Europako Alderdi Demokratikoaren (EAD) Bilboko adierazpenaren zirriborroa

beren politika ekonomikoak bateratzeko eta kolpe asimetrikoak gertatzen direnean beren kideen elkartasunetik etekina ateratzeko.

Batasun ekonomiko eta monetario bat sortu dugu, baina estatu kideei zerga-gaietan (bereziki, sozietateen gaineko zergari dagokionez) modu basatian beren artean lehiatzen uzten diegu.

Enfasi askorekin, globalizazioaren gehiegikerien aurrean Batasuna babesteko hartu dugun erabakia aldarrikatzen dugu, baina kanpoko gure lehiakide nagusiei enpresa edo azpiegitura estrategikoak bereganatzen uzten diegu eta ez dugu errazten lehiakide erraldoiekin lehiatzeko gai diren Europako enpresa erraldoiak sortzea.

Interneteko multinazional handiek etekin nabarmenak jasotzen dituzte Europako herritarren datuekin komertzializatuz eta, hala eta guztiz ere, gure ETE europarrei baino zerga baxuagoak kobratzen dizkiegu.

Duela gutxi, Gizarte Eskubideen Europako Zutabea onetsi izana sustatu eta aurkeztu genuen, baina oraindik ez daukagu gizarte-dumpingaren aurka egiteko eraginkorra den tresnarik eta Europar Batasunean gizarte-bateraztea sustatzeko ibilbide-orririk.

Ofizialki, muga komun bat ezarri dugu, baina ez ditugu modu berdinezalean zaintzen eta hegoaldeko estatu kideak ia bakarrik utzi ditugu milaka kilometrotako itsasoko mugak kudeatzen eta, gainera, oraindik ez daukagu emigranteen asiloari buruzko araudi bateraturik.

Presioa egiten ari gara jatorrizko herrialde afrikarrei edo igarobide diren herrialdeei beren herritarrak Europarantz irtetea mugatzeko, baina oraindik ez dugu jarri martxan beraiekin Afrikak behar duen Marshall Plana, hau da, hazkunde bizkorrean dagoen populazioa duen kontinente baten garapena bermatzeko plana.

Batasuneko herrialdeek beren defentsarako gastatu duten aurrekontuak batzen baditugu, Errusiak baino diru gehiago gastatzen dugu, baina ez gara gai beharrezkoa den kasuetan Europako indarrak atzerriko eragiketetan



Europako Alderdi Demokratikoaren (EAD) Bilboko adierazpenaren zirriborroa

mobilizatzeko eta Errusiak bere bizilagun europarrekiko ezartzen duen politika abenturazale eta gerrazalearekin amaitzeko.

Klima-aldaketaren kontra borrokatzeko politika europarrak munduko handinahienetakoak dira. Baina, Estatu Batuak Pariseko akordioetatik atera diren arren, Europak inoiz baino gehiago jarraitu behar du baliabide propio berriek finantzatutako ekonomia berderanzko trantsizioa egiteko eta milioika lanpostu sortzeko bere plan handinahiarekin.

Erronka izugarria da, baina premia hor dago, begien bista.

EAD erronka horri ekiteko prest dago.

Europa berreraikitzeke unea iritsi dela uste baitugu.